


Erriberri^{ko} 25. Antzerki Jaialdia

2024ko
uztailaren 19tik
abuztuaren 4ra



Eskerrik asko, eta goazen beste 25 urte betetzera!

Erriberriko Antzerki Jaialdia nazioartean, nazioan eta bertan ekoizitako azken nobedade eszenikoekin urtero izaten dugun topaketa izango da berriro ere bi astean, beste uda batez. Arte eszenikoetako tradizio askotarikoenak proposamen ausartenekin, berritzaileenekin eta garaikideenekin bat egiten duten tokia.

Oraingo honetan, iragarki-kartelak Erriberriko Errege-erreginen Jauregiko arrautza erakusten digu —argiaren ahalmen sortzailea irudikatzen duen elementua, antzerkiaren sintesia—, eta hartatik hedatzen da 27 emanaldiz gozatzera gonbidatzen gaituen argi bat. Emanaldi horietatik 14 emakumeek sortu, idatzi edo zuzendu dituzte, 8 Nafarroako konpainienak dira, bat nazioarteko ikuskizuna da, 2 izaera inklusibokoak, bat euskarazkoa eta 3 irisgarriak. Kopuru horiek agerian jartzen dute programazio garaikidea, askotarikoa, desberdina dugula aurrez aurre, sorkuntzaren joera guztiak hartzen dituen barne, tradizionala ahaztu gabe eta emakumeen presentzia handiarekin antzezlanetan, besteak beste, sorkuntzaren, zuzendaritzaren edo idazketaren arloetan.

Oraingo honetan, Jaialdiak 25. edizioa izango du; gure komunitateko kultura-egutegian funtsezko hitzordu moduan eta nazioko eta nazioarteko arte eszenikoen alorrean ezinbesteko erreferentzia moduan sendotu den festibal baten ibilbidea agerian jartzen duen urtemuga.

Mende laurden honetan urtez urte, Erriberriko emanaldiak ikus-entzulez bete izan dira, askotan Nafarroako konpainien eta artisten proposamenez gozatzeko. Hartara, errealitate horrek festibal honen harrera bikainaz eta komenigarritasunaz hitz egiten du, bai publikoarentzat, bai eta gure komunitateko arte eszenikoetako sektorearentzat ere.

25. urteurren honen oroitzapena egiteko, mahai-inguruak, erakusketak eta gala bat dituen ziklo berezi bat diseinatu da. Festibal honen barru-barruko zatia osatzen duten profesionalen aitortza egiteko modu bat, eta bai Erriberri eta bertakoei ere, urte hauetan jaialdia hartu eta zaintzeagatik.

Jaialdi hau ahalbidetu duten eta ahalbidetzen jarraitzen duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiet, eta bereziki, hitzordu honetan konfiantza izaten jarraitzen duen publikoari. Haiei guztiei, eskerrik asko... eta goazen beste 25 urte betetzera!

Rebeca Esnaola

Kultura eta Kirol kontseilaria

Erriberri gara duela *25 urtetik*

25 urte betetzea poztasun handienetako bat da jaialdi batentzat. Bere sendotasunaren seinalea da, aztarnarena, denbora horretan guztian talde desberdinek egin duten lanarena. Lurralde baten kulturaren barnean duen garrantzia berresten du.

Edizio honetan, Erriberrik bere jaialdiaren 25 urte ospatuko ditu. 25 urte, antzerkia, dantza, musika, zirkua bultzatzen. Partekatutako malkoz, ezustezkoz eta barrez betetako 25 urte. 25 urte, batzen, hunkitzen eta urtero bizitza ospatzeko elkartzen gaituen zerbaitez gozatzen.

Jaialdia asko aldatu da jaio zenetik. Mutatzen eta bere ingurune eta errealtatera egokitzen jakin du. Iraganaren ondarea jasotzen, oraina eraldatzen eta etorkizuna amesten jakin du; bere ingurunearekin elkarrizketan jarduten jakin du, garai bakoitzeko egoerak besarkatzen eta bide egiten, beti aurrerantz, eta beti esperientzia partekatu horren alde.

Bertan izan den eta lagun egin dion ikus-entzule bakoitzari esker egin ahal izan da jaialdi hau, eta edizio honetan omenaldia egin nahi die denei, haien konplizitatea txalotu nahi du eta ikus-entzuleak erdian jarri nahi ditu, ezaguna denaren begirada berri bat sortzera gonbidatuta, ezezaguna dena aurkitzeko.

Edizio honek aintzat hartu nahi du iragana, nondik gatozen ez ahazteko; oraina ospatu nahi du, topatzeari, diferentziari, gogoetari tokia emanez; eta geroari begiratu nahi dio, itxaropena bizi den toki moduan, bizi izandakoa lur emankor baita bertan, begirada berriak, bide berriak, sortzeko.

Denok ongietorriak garen leku bat da Erriberriko Antzerki Jaialdia, gure inguruneari begiratzeko eta komunitate askotariko, eder eta solidario baten parte garela ikusteko; kulturaren ospakizuna, bere adierazpen gorenean; lur honetako bizitzaren oinarritzko euskarria. Egun, inoiz baino gehiago, Erriberri gara.

Ane Pikaza & María Goiricelaya

2024ko Erriberriko Antzerki Jaialdiaren

Zuzendari Artistikoak

Abonuak eta sarrerak

*Salmenta, ekainaren
4tik aurrera*

Online salmenta www.FestivalTeatroOlite.es | www.baluarte.com

Salmenta Leihatilan

Baluarte (948 066 060)

- Ekainaren 4a eta uztailaren 5a artean, 11:00-14:00 eta 17:00-20:00, astelehenetik larunbatera. Igande eta jaiegunetan, itxita. Ekitaldia badago, bi ordu lehenago irekitzen da.
- Uztailaren 6a eta 15a artean, bi egun horiek barne, txartel-leihatila itxita egongo da.
- Uztailaren 16a eta abuztuaren 4a artean, 11:00-14:00, astelehenetik larunbatera. Igande eta jaiegunetan, itxita. Ekitaldia badago, bi ordu lehenago irekitzen da.

La Morea merkataritza-gunea (679 968 580)

Zabalik asteko egun guztietan (igande eta jaiegunetan izan ezik), 09:30-21:30.

Erriberri (848 42 32 23)

- Ekainaren 4tik aurrera, asteburuetan eta jaialdian zehar, Enozentrumen.
- Ostiraletan, 17:00-19:00; larunbat eta igandeetan, 10:00-14:00.
- Ikuskizuna dagoen egunetan, 19:00-22:00.

Erriberriko kultura-etxea (948 740 772)

'Entrañas' (3€). Ekainaren 4tik aurrera, Udalaren webgunearen (www.olite.es) eta 948 012 012 telefonoaren bidez. Erriberriko kultura-etxean, emanaldiaren egunean.

Centro Cultural Tafalla Kulturgunea (948 755 969)

'El mundo está roto' eta '104. HAURRA' (3€), 'Together to get there' (8€). Ekainaren 4tik aurrera, txartel-leihatilan eta online hemen: es.patronbase.com/_Tafalla/Productions

Erriberriko Errege-erreginen Jauregia, Frantziskotarren eliza eta Ezpeleta jauregia

Sarrera librea, edukiera bete arte. Aurretik gonbidapenak hartu behar dira Enozentrumen txartel-leihatilan Erriberriko ikuskizunetarako eta Beireko Ezpeleta jauregiko ikuskizunaren aurretik.

Prezioak

La Cavako ikuskizunak	20€ (12€ Gazte Txartelarekin)
La Cavarako abonua osoa (10 emanaldi)	175€ (80€ Gazte Txartelarekin)
La Cavako hiru emanalditarako abonua, aukeran (edozein egun)	55€ (28€ Gazte Txartelarekin)

MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN PERTSONAK. Erriberriko Antzerki Jaialdian, La Cavako ikuskizunetarako, zortzi leku daude gordeta mugikortasun murriztua duten pertsonentzat emanaldi bakoitzerako. Sarrera horiek erosi nahi dituzten ikus-entzuleek Baluarteko eta Erriberriko txartel-leihatiletan edo 948 066 060 telefono zenbakiaren bidez egin beharko dute (erosketa bakoitzean, gehienez ere, 2 sarrera erosi ahal izango dira). Hartara, Antzerki Jaialdiak ezin die bermatu beren beharretarako kokaleku egokia izatea, gordetako leku horietarako ez den sarrera erosten duten mugikortasun murriztuko pertsonen. Edonola ere, antolatzaileak saiaturko dira ikus-entzule horiek kokatzen esparruak eskaintzen dituen aukeren barnean.

IRISGARRITASUNA. 'Moríos', 'Mal de coração' eta 'Macho grita' antzezlana irisgarriak izango dira ikusteko eta entzuteko desgaitasuna duten pertsonentzat. Zerbitzu hauek izango dituzte: azpigitulazte egokitua, audiodeskribapena, bakarkako begizta magnetikoa eta soinu anplifikatua entzungailuekin.

2024ko



Egitaraua

Uztailak 19

22:00

La Cava

FOREVER

Kulunka Teatro

Izango zela amestu zuenetik aldenduko da familia bat. Mozorro-antzerkia, umorez eta ironiaz islatzen dituen maitasunaren kontraesanak.

00:00

Karlos III.aren plaza, Erriberri

MELINAS 🎧

Iruñeko indie taldea, popa, punka, garagea eta psikodelia nahasten dituen.

Uztailak 20

13:00

Enozentrum, Erriberri

TOPAKETA FOREVERREKIN

Daniel Galindo, Machús Osinaga eta Raúl Losanezekin

19:00

Nekazarien Parkea, Beire

B.O.B.A.S. 🎧 🎭

Cia Jimena Cavalletti

Clown hirukote batek egoera dramatiko bat istripu-komedia bihurtuko du, tronpeta, bonbardino, danbor eta txindata erritmoan.

22:00

La Cava

HELEN KELLER,

¿LA MUJER MARAVILLA?

Chévere

Helen Keller Harvardeko titulu bat lortu zuen lehen pertsona gor-itsuari buruzko antzezlan dokumentala, zeinu-hizkuntzan eta hizkuntza mintzatuan egina.

Uztailak 21

13:00

Enozentrum, Erriberri

TOPAKETA CHÉVERE ETA CULTURA I CONFLICTEREKIN

Daniel Galindo, Machús Osinaga eta Raúl Losanezekin

19:00

Igerilekuetako aparkalekua,

San Martin Unx

B.O.B.A.S. 🎧 🎭

Cia Jimena Cavalletti

Clown hirukote batek egoera dramatiko bat istripu-komedia bihurtuko du, tronpeta, bonbardino, danbor eta txindata erritmoan.

22:00

La Cava

MORÍOS 🎭

Cultura i Conflicte eta Teatre de l'Aurora

Zahardadeari buruzko ikuskizuna, musika, hitzak, irudiak eta mugitzen diren gorputzak dituen.

Uztailak 23

21:00

Erriberriko Errege-erreginen Jauregia, Masustondoaren Patioa

MEMORIA

Itziar Manero

Gaixotasunaren, denboraren eta ahanzturaren kontrako lasterketa. Oroimenari eta hura galtzeari buruzko antzezlan dokumentala, non egilea amonaren oroitzapenak erregistratzen saiatzen den.

Uztailak 24

20:00

Centro Cultural Tafalla Kulturgunea

EL MUNDO ESTÁ ROTO PERO SE PUEDE CAMINAR

Inxtremis Teatro

Alabarekin nola komunikatu ez dakien aita batek paperezko hegazkina bidaltzen dio egunero, agur esateko. Hala, neskatoak liburuen eta bizitzaren arteko harremana ezagutuko du.

Uztailak 25

19:00

Elizako plaza, Pitillas

CONVERGENCIA 🎭

De Improviso

Antzezlan inprobisatua, Nafarroaren kultura-aberastasuna eta memoria historikoa ospatzen dituen.

20:00

Karlos III.aren plaza, Erriberri

KAMCHÀTKA 🎭

Kamchàtka

Zortzi pertsonaia hirian galduta, bakoitza bere maleta aldean duela. Antzerkiaren, jolasaren eta bizitzaren beraren arteko mugak hausten dituen inprobisazio-ikuskizuna.

22:00

Teobaldoen plaza, Erriberri

YÜGEN

La Banda teatro circo

Zirkua eta antzerkia konbinatzen dituen murgiltze-esperientzia, ikus-entzulea bere muinaren zentzuarekin konektatzera bultzatzen duena.

Uztailak 26

12:00

Karlos III.aren plaza, Erriberri

KAMCHÀTKA 🎭

Kamchàtka

Zortzi pertsonaia hirian galduta, bakoitza bere maleta aldean duela. Antzerkiaren, jolasaren eta bizitzaren beraren arteko mugak hausten dituen inprobisazio-ikuskizuna.

20:00

Centro Cultural Tafalla Kulturgunea

104. HAURRA 🎭 🎭

Yarleku Teatro

104. haurra umezurztegi batean dago, eta adopta dezatela nahi du. Aktoreen antzezpena objektuen eta txotxongiloen antzerkiarekin nahasten duen familia-ikuskizuna.

22:00

La Cava

VILLA

Teatro Playa

Villa Grimaldi, Pinocheten diktadurako tortura-gune nagusia, birmoldatzeko aukera desberdinak eztabaidatuko dituzte hiru emakumek.

Uztailak 27

19:30

Teobaldoen plaza, Erriberri

MDR (MUERTE DE RISA) 🎭

Los Galindos

Zirku- eta kale-ikuskizun gertagaitza, nerabe, gazte eta helduentzat. Deseroso sentiarazteko eta dibertitzeko fartsa.

22:00

La Cava

MAL DE CORAÇON 🎭

Companyia Solitària

Santa Teresa Avilakoaren figuraren inguruko esplorazioa, hiru pertsonaia agoniko taberna batean elkartzearen bidez.

Uztailak 28

19:00 eta 20:00

Erriberriko kultura-etxea

ENTRAÑAS

El Patio Teatro

Izaskun eta Julián giza gorputzaren barnealdera agertuko dira, objektuen antzerkiaren eta kontaktaren bidez, barnean dugun hori zer den azaltzen saiatzeko.

22:00

La Cava

CASTING LEAR

Barco Pirata, Teatro de la Abadía

y Andrea Jiménez

Barco Pirata, Teatro de la Abadía eta Andrea Jiménez Shakespeareren 'Lear erregea' lanaren bertsio honen asmoa da ate ireki bat izatea, gurasoekin harremanak nola ditugun pentsatzeko.

Uztailak 29

20:00

Beire

EGONALDIA: PHILÍA

Compañía Paraván

Uztailak 30

20:00

Centro Cultural Tafalla Kulturgunea

EGONALDIA: Y VOLVER, VOLVER, VOLVER...

Maialen Díaz Urriza

eta Emilia Ecay Arroniz

20:00

Erriberriko kultura-etxea

EGONALDIA: PHILÍA

Compañía Paraván

Uztailak 31

20:00

Erriberriko kultura-etxea

EGONALDIA: Y VOLVER, VOLVER, VOLVER...

Maialen Díaz Urriza

eta Emilia Ecay Arroniz

22:00

La Cava

EZKABA

Iluna Producciones

Presondegiaren memoria bertako biztanle bakoitzaren memoria da, familia, zapuztutako ilusioena eta itxaropenena. San Kristobal gotorlekuaren tragedia eta presoen historia kontatzen du.

Abuztuak 1

19:30

Frantziskotarren eliza

DE TAL PALO

Miguel Oyarzun y Juan Ayala

Miguel Oyarzun eta Juan Ayala

Parte-hartzean oinarritutako ikuskizuna, biloba eta aitona-amonentzat. Bizirik dauden bi belaunaldiren bizitza esploratzen du. Memoria historikoko ariketa bat, esperientzia intimotik.

Abuztuak 2

20:00

Erriberriko Errege-erreginen Jauregia, Sarrerako patioa

CANCIÓN

Nacho Bilbao

Bakarrizketa abestua, batera abesteko gonbidapena, beste gizaki batzuekin batera bizitzeari buruzko balada etsia

22:00

La Cava

HALLEY

Led Silhouette

Dantzaren bidez, eta kometa berriro igaro baino lehen, antolatu eta beren bizitzei zentzua aurkitzeko erronka dute aurrez aurre zortzi pertsonak.

Abuztuak 3

19:00

Ezpeleta jauregia, Beireko aterpetxea

CONVERGENCIA

De Improviso

Antzezlan inprobisatua, Nafarroaren kultura-aberastasuna eta memoria historikoa ospatzen dituen.

20:00

Centro Cultural Tafalla Kulturgunea

TOGETHER TO GET THERE

Akira Yoshida & Lali Ayguadé

Dantzaren eta mugimenduaren bidez, hitzetatik harago doan elkartze intimo bat aurkituko du ikus-entzuleak.

22:00

La Cava

MACHO GRITA

Alberto San Juan

Egileak berak Espainiako historiaz duen ezjakintasunaren kronika.

Abuztuak 4

22:00

La Cava

IRIBARNE

ButacaZero

Hau ez da Manuel Fragari buruzko biopic-a, baizik eta Trantsizioaren kontra egiten duen eta Espainiaren duela gutxiko historia erakusten duen satira.

Instalazio etengabea

Uztailaren 19a eta abuztuaren 4a artean

Teobaldoen plaza, Erriberri

ROSA DE PIERIA

Marta Pazos

Jaialdia antzerki klasikoko jaialdi moduan sortu zela aintzat hartuta, instalazio honen nahia da artista emakumeak gurtzeko ideia ekartzea.

Tailerrak eta mintegia

Uztailaren 22tik 26ra – 10:00-14:00

Erriberriko kultura-etxea

EL TIEMPO COMO MATERIA

Marta Pazosekin

Tailer teoriko-praktiko honetan, sortzaile eszenikoak bere lanaren sistematizazioa partekatuko du.

Uztailaren 22tik 26ra – 11:00-14:00

Erriberriko kultura-etxea

¿CUÁLES SON LAS VERDADERAS NORMAS?

Victoria Szpunbergekin

Ibilbidea egingo da dramaturgiaren oinarritzko kontzeptuetan, idazketako ariketa praktikoek lagunduta.

Uztailaren 28an – 12:00-14:00

Enozentrum, Erriberri

MINTEGIA: RECLAMAR LO REAL

Miguel Oyarzunekin

Nafarroako konpainientzako tailerra, dokumentu-antzerkian erabiltzen diren antzezpen-teknikak, idazteko tresnak eta gailu eszenikoak lantzeko.

Uztailaren 29a eta abuztuaren 2a artean – 11:00-14:00

San Frantzisko eskola zaharrak

GURE ERIBERRI – NUESTRO OLITE

Nacho Bilbaorekin

Antzerkiko eta sorkuntza eszenikoko tailerra, 8 eta 16 urte artekoentzat.

Eriberrri



25. urteurrena

25. urteurreneko ekitaldiak

Erriberriko Antzerki Jaialdia

Erriberriko Antzerki Jaialdiaren edizio berri bat dugu aurrez aurre, berezia izango den edizioa, aurten Jaialdiak 25 urte beteko baititu! Pausoz pauso, urtez urte, Jaialdia bilakaera izaten eta gure bizitzei lagun egiten joan da. Erriberriko Udalak eta herriak kudeatutako lehen bultzada hartatik gaur egun arte, Nafarroako Gobernuak antolatuta, Jaialdiak bere publikoen eta artisten munduaren arreta berezia irabazi eta lortu du. Bertan parte hartu izan duten, defendatu duten, harmailatik, kaletik, bulegotik edo agertokitik estimatu duten pertsoneri zor diegu Jaialdiak 25 urte betetzea. Eta etorkizunean parte hartu, defendatu eta estimatuko duten pertsonekin gero eta hobea izango den arte eszenikoetako jaialdi publikoa lortuko dugu, sorkuntzaren eta herritarren zerbitzura egongo dena.

Urteurrena ospatzeko, omenaldi-jarduera batzuk prestatu ditugu, hiru helburu hauei erantzun nahian:

- Jaialdian parte hartzen duten lanbideen aitortza egitea, arte eszenikoetako jaialdi baten inguruan dauden profil edo ogibide desberdinak ikusgai egiteko.
- Erriberrik eta bertako herritarrek Jaialdian izan duten eginkizunaren aitortza egitea.
- Erriberriko Antzerki Jaialdia femeninoan, jaialdi honen historian emakumeen presentzia garrantzitsua nabarmentzeko.

Zorionak eta goza dezagula!

Ekitaldiak

Uztailak 21 – 20:00

Karlos III.aren plaza, Erriberri

25. URTEURRENAREN

OROITZAPENA EGITEKO GALA

Erakusketak

Uztailaren 19tik abuztuaren 4ra

Karlos III.aren plaza, Erriberri

KARTELEN ERAKUSKETA

Uztailaren 19tik abuztuaren 4ra

Karlos III.aren plaza, Erriberri

ARGAZKI-ERAKUSKETA:

ERRIBERRIKO JAIALDIA

OBJEKTIBOAN

Uztailaren 19tik abuztuaren 4ra

Erriberriko kultura-etxea

ARGAZKI-ERAKUSKETA:

ERRIBERRIKO ANTZERKI

JAIALDIAREN 25. URTEURRENA

Mahai-inguruak

Uztailak 24 – 19:00

Reyna de Copas, Erriberri

ERRIBERRIKO ANTZERKI

JAIALDIA FEMENINOAN

Uztailak 27 – 12:00

San Pedro (klastroa), Erriberri

ERRIBERRI ETA ANTZERKI

JAIALDIA

Abuztuak 3 – 12:00

Enozentrum, Erriberri

LANBIDEAK ERRIBERRIKO

ANTZERKI JAIALDIAN

Arte eszenikoak



eta musika



Forever

Kulunka Teatro

Uztailak 19, ostirala — 22:00

La Cava

Izango zela amestu zuenetik aldenduko da familia bat. 'Forever' lanak umorez eta ironiaz islatzen ditu maitasunaren paradoxak, eta hainbat gaitan jartzen du arreta, adibidez, amatasunean, heziketan, desgaitasunean eta inkomunikazioan. Bilbea plataforma birakari baten gainean gertatuko da; 'bizitzak ematen dituen buelten' metafora moduan funtzionatzen duen plataforma, hain zuzen. Biraka dabilen neurrian, protagonisten dramatikoki sakontzen duen espirala da. Tragikomedia ederra eta sakona, etorkizunerako ditugun proiektzioen eta errealitatearen beraren artean dagoen distantziatik jaiotzen dena.

'André y Dorine' eta 'Solitudes' antzezlanen ondoren, Kulunka Teatro konpainiak berriro egin du mozorroen lengoia isilaren alde, samurtasuna eta gordintasuna konbinatzen dituen ikuskizun batean.

Iraupena: 105'

ANTZEZLEAK

José Dault, Garbiñe Insausti eta Edu Cárcamo

PARTAIDEEN ZERRENDA

Sorkuntza: Iñaki Rikarte, José Dault, Garbiñe Insausti eta Edu Cárcamo

Zuzendaritza: Iñaki Rikarte
Jantziak eta eszenografia:
Ikerne Giménez

Musika-konposizioa eta

soinua: Luis Miguel Cobo

Argiztapenaren diseinua:

Javier Ruiz de Alegría

Argazkiak: Aitor Matauco

Prentsa: María Díaz

Banaketa: Proversus


Ekoizpena: Kulunka

Teatro, Zentro Dramatiko
Nazionalarekin, Donostiako
Victoria Eugenia

Antzokiarekin eta Bilboko
Arriaga Antzokiarekin batera.

INFORMAZIO GEHIAGO

www.kulunkateatro.com

@kulunkateatro  

Melenas

Kontzertua

Uztailak 19, ostirala — 00:00

Karlos III.a Noblearen plaza

Melenas Iruñeko talde bat da, eta taldekideak Oihana (gitarra eta ahotsa), Leire (baxua), María (teklatura) eta Lauri (bateria) dira. Beren musika poparen, punkaren, garagearen eta psikodeliaren nahasketa da. Taldearen abestiak, reverben nahastuta, pop atemporala erakutsi nahia dira, doinu bikainekin, baxuaren ildo freskoekin, teklatu sutsuekin eta bateria krautekin, txinpartaka ari diren phaserrekin apaindu eta ahots-armoniekin biltzen direnak. Estatuko hainbat jaialditan aritu izan dira, adibidez, Primavera Sound, FIB eta BBK jaialdietan, eta bai nazioartekoetan ere, besteak beste, Austingo SXSW eta Holandako Eurosonicen. Taldearen eraginen artean, Velvet Underground, Marine Girls, Television Personalities eta Holy Waves daude.

Iraupena: 60'

INFORMAZIO GEHIAGO

@melenasband [f](#) [@](#) [x](#)





B.O.B.A.S.

Cia Jimena Cavalletti

Uztailak 20, larunbata — 19:00

Nekazarien Parkea, Beire

Uztailak 21, igandea — 19:00

Igerilekuetako aparkalekua, San Martin Unx

Musika-banda batek hileta-zeremoniak antolatzen ditu, baina hileta-elizkizunaren unea ailegatzen denean ez dira iritsi ez apaiza ez eta hildakoa ere. Hildakoaren atzerapen horretan, hiru musikariek itxaronaldi deserosoa eta oso txarra partekatuko dute senitartekoekin eta lagunekin. Tronpeta, bonbardinoa, danborra eta txindata erabilita, 'B.O.B.A.S.' (Banda Orquestal Benéfica de Actos Sepulcrales) bandak egoera dramatiko bat istripu-komedia bihurtuko du. Clown hirukote honek aukera baliatuko du publikoari oinarritzko gauzetaz barre eginarazteko.

Bere lanean, Jimena Cavallettiren bilaketa artistiko nagusia hurbiltasuna da, ikus-entzuleekiko harreman zuzena, umorea, musika eta emakumeak agertokian umorea egiten ikustearen normalizazioa.

Iraupena: **55'**

ANTZEZLEAK

Lisa Madsen, Laia Sales
y Jimena Cavalletti

PARTAIDEEN ZERRENDIA

Pertsonaien entrenamendua:

Caroline Obin

Jolasaren entrenamendua:

Elise Ouvrier Buffet

Egituraren garbiketa:

Pablo Ibarlucea

Jantzien diseinua: BOBAS

Jantziak egitea: Lluna Albert,
Carmen Montes eta BOBAS

Eszenografia eta atrezzoak:

Emanuele Fiandri, Oriol Pont
eta Vicente Martínez

Bideoak eta argazkiak:

Iván Lionel eta Laia Sales

Jatorrizko ideia: BOBAS

Kanpoko begirada: Rumba

Ekoizpena: Iván Lionel

Ekoizpen exekutiboa: Cesar
García, Cristina Pareja eta
Víctor Méndez

Ekoizpen orokorra: Cía.

Jimena Cavalletti

Koprodukzioa:

Festival Internacional
de Pallasos de Cornellá
Kolaboratzaileak: IVC
Valentziako Kultura Institutua,
INAEM Espainiako Arte
Eszenikoetako eta Musikako
Instituto Nazionala, Circ Cric,
Xirivellako Udala

INFORMAZIO GEHIAGO

www.jimenacavalletti.com

Jimena.Cavalletti

@ciajimenacavalletti

VALENTZIA

KALEA

MUSIKA

Helen Keller, ¿la mujer maravilla?

Chévere


Uztailak 20, larunbata — 22:00

La Cava

Antzezlan dokumentala, Helen Kellerren inguruan eraiki zen mitoari aurre egin nahi diona. Keller 1904an Harvarden unibertsitate-titulua eskuratu zuen lehen pertsona gor-itsua izan zen. Bideojoko baten tutorial moduan planteatuta dago pieza eszeniko hau, eta bertan aktoreak abatar gisa ariko dira, testu proiektatu batzuen bidez ematen doazen jarraibideak gauzatzen agertokian.

‘Helen Keller, ¿la mujer maravilla?’ antzezlanak hizkuntza mintzatua eta zeinu-hizkuntza integratzen ditu. Entzuten duten eta ez duten pertsonen arteko inkomunikazioa zalantzan jartzen du ikuskizunak, agertokian elkarrizketa ireki bat partekatzearen aukerak esploratzen ditu eta hizkuntza minorizatuen, haien erabilera publikoaren eta elkartzearen garrantzia aldarrikatzen du isilean.

Iraupena: **85'**



ANTZEZLEAK

Patricia de Lorenzo, Chusa Pérez de Vallejo eta Ángela Ibáñez

PARTAIDEEN ZERRENDA

Dramaturgia eta zuzendaritza:

Xron

Komunikazioa: Xana García

Soinua: Xacobe Martínez Antelo

Argiztapena: Fidel Vázquez

ekoizpena: Patricia de Lorenzo

Zuzendaritzako laguntzailea:

Borja Fernández

Grafikoa: Tristán Ron

Ikus-entzunezko espazioa:

Lucía Estévez

Espazio eszenikoa: Nononon.lab

Banaketa: Cremilo, Carlos M. Carbonell

Jantziak: Uxía Vaello

Jatorrizko ideia:

Chusa Pérez de Vallejo

Inklusioari buruzko aholkularitza:

Chusa Pérez de Vallejo

ekoizpena, administrazioa:

Inés Portela

Zeinu-hizkuntzari buruzko aholkularitza:

Ramón Costoya Lens

Espainiako zeinu-hizkuntzara

egokitzea: Ángela Ibáñez,

Chusa Pérez de Vallejo

Azpitulua: Iñaki Ruiz

Printak: Antía Martín

Audio-deskribapena: Nieves

García, Susana Longueira

Kolaboratzaileak: Galiziako

Zentro Dramatikoa, Ameko

kontzejua, Ártika aretoa

Chévere, Zentro Dramatiko

Nazional eta Teatre Lliureren

arteko koprodukzioa, AGADIC/

Galiziako Xuntaren babesarekin.

INFORMAZIO GEHIAGO

www.grupochevere.eu

@grupochevere

@chevereteatro

Moríos

Cultura i Conflictte eta Teatre de l'Aurora

Uztailak 21, igandea — 22:00
La Cava

'Moríos' lanak zahartzearen esperientzian sakontzen du, eta bai gizarteak zaharrei ematen dien tratuan ere, eufemismorik gabe. Antzezlanak aurre egiten dio adinekoen diskriminazio eta inbisibilizazioari, haien hitza eta garrantzia aldarrikatuz. Gorputza abiapuntu moduan hartuta eta haren bidez, duintasunez eta errespetuz zahartzearen zailtasunak eta erronkak esploratzen dira, ikus-entzulea hausnartzera bultzatuta.

Cultura i Conflictte gaiztatutako ikerketa-proiektua da, bizitzako une desberdinetako, lanbide, jatorri eta gorputz desberdinetako adinekoekin izandako solasaldiak barne hartzen dituena.

Iraupena: **90'**

ANTZEZLEAK

Imma Colomer, Montse Colomé, Oriol Genís, Arthur Rosenfeld, Magda Puig, Erol Ileri eta Piero Steiner / Enric Ases

PARTAIDEEN ZERRENDIA

Zuzendaritza: Joan Arqué Solà

Dramaturgia: Anna Maria Ricart Codina

Koreografia: Sol Picó

Eszenografia: Judit Colomer

Jantziak: Rosa Lugo Fàbregas

Argiztapena: Jou Serra

Soinua: Pepino Pascual

Bideoa: Erol Ileri Llordella

Zuzendaritzako laguntzailea:

Carla Tovias

Ekoizpeneko zuzendaritza:

Òscar Balcells

Ekoizpen exekutiboa:

Judit Codina Serra

Buru teknikoa: Xavier Amat

Birako teknikariak: Marc

Jodar eta Jordi Domènech

Administrazioa: Mònica Cardús

Ikerketa eta dokumentazioa:

Teresa Turiera-Puigbò

Bergadà Marissa Paituví

Argazkiak: Marta García

Cardellach

Ekoizpena: Cultura i Conflictte

eta Teatre de l'Aurora

Koprodukzioa: TNC eta

Temporada Alta – Arte

Eszenikoetako Nazioarteko

Jaialdia, Girona/Salt

Banaketa: Roser Soler

INFORMAZIO GEHIAGO

www.teatreaurora.cat

www.culturaiconflicte.org

📍 KATALUNIA

🎭 EMANALDI IRISGARRIA





Memoria

Itziar Manero

Uztailak 23, asteartea — 21:00

Erriberriko Errege-erreginen Jauregia, Masustondoaren Patioa

Gaixotasunaren, denboraren eta ahanzturaren aurkako lasterketa. Oroimenari eta hura galtzeari buruzko antzezlan dokumentala, non egilea amonaren oroitzapenak erregistratzen saiatzen den. Bere buruari galderak egin, nork bere burua ezagutu, zaindu eta agur esateko saiakera, oroitzapenak desagertu aurretik. Zer gertatzen da pertsona batek oroimena galtzen duenean? Nora joaten dira bere oroitzapenak? Zerekin gelditzen dira bere ondorengoak?

Itziar Maneroren bakarkako lehen lana da. Harrobia-Eskenaren Trantsizioak programan eta Bilboko Udalaren Artista egoiliarrek programan hautatu dute.

Iraupena: 60'

ANTZEZLEA

Itziar Manero

PARTAIDEEN ZERRENDIA

Zuzendaritza eta sorkuntza:

Itziar Manero

Zuzendaritza eta sorkuntzako

laguntzailea: Silvia Larrauri

Aholkularitza artistikoa:

Silvia Larrauri, Itsaso Arana

Argiztapena:

José Antonio Villegas

Eszenografia eta jantziak:

Paola de Diego

Soinuak: Asier Renteria

Ikus-entzunezko materiala:

Ekhi Hontecillas

Kartela: Laura Renau

Itzulpenak: Peru Azpillaga

Ekoizpena: Itziar Manero

Eusko Jaurlaritzaren, Bilboko Udalaren, Harrobia-Eskenaren eta Garaion Sorgingunearen babesarekin

INFORMAZIO GEHIAGO

@itziar_manero



El mundo está roto pero se puede caminar

Inextremis Teatro

Uztailak 24, asteazkena — 20:00
Centro Cultural Tafalla Kulturgunea

Lehenago edo geroago emozio- eta bizi-arrakala sortzen da elkarrekin komunikatzen ez dakiten gurasoen eta seme-alaben artean. Antzezlan honetan, ama ez egotea da aita baten eta hamar urteko alabaren arteko elkar ulertzea zailtzen duena. Aitak erabakiko du literaturara jotzea, hautsi diren zubiak berreraikitzeke. Egunero paperezko hegazkin bat bidaltzen dio balkoitik, agur esateko. Mezu idatzi horien bidez, aitak literatura-misioak jartzen dizkio alabari, liburuzain kezkatu baten laguntzarekin argitzeko. Hartara, neskatoak liburuen eta bizitzaren arteko harremana ezagutuko du.

Inextremisen xedea da liburutegia mundura zabalik dauden leiho batzuk bezala erakustea. Istorioen istorio honek zenbait egileren testuak josten ditu, adibidez, Jutta Bauer, Sylvia Plath, Julio Cortázar eta Chinua Acheberrenak, istorioak kontatzeko zaletasuna eta komunikazio-ingurune partekatu batean entzuteko plazera lagunduz.

Iraupena: 60'



ANTZETZLEAK

Iratxe García Uriz, Leire Ruiz
eta Txori García Uriz

PARTAIDEN ZERRENDA

Egilea: Harkaitz Cano
Zuzendaritza eta espazio
eszenikoa: Fernando Bernués
Jantziak: Ilazki Martiarena
Irudiak: Isabel Herguera
Argiztapena eta koordinazio
teknikoa: Acrónica
Producciones
Ekoizpena: Oier Zufiga
Argazkiak: Ana Osés
Banaketa: Portal 71

INFORMAZIO GEHIAGO

www.inextremisteatro.com
@InextremisTeatr 
@teatro_inextremis 

 NAFARROA

Convergencia

De Improviso

Uztailak 25, osteguna — 19:00

Elizako plaza, Pitillas

Abuztuak 3, larunbata — 19:00

Etzeleta jauregia, Beireko aterpetxea

Kaleko ikuskizun honetan, bat-bateko antzerkikoan, zuzeneko musika eta publikoa elkarrekin jolasten dira dauden tokiko historia irudikatu eta berpiztera. 'Convergencia' antzezlanak herrien memoria berreskuratu eta astintzen du, bertako txoko ahanzi eta tradizio deuseztatuena, herri-kultura, sustraiak eta Nafarroako herri desberdinen iragan historikoa argitu eta ohoratzeko nahiarekin.

De Improviso taldeak erreferentzia-puntu gisa hartzen du ikuskizuna egiten duen tokia edo ibilbidea, leku horren historia aurretik ikertuta eta bertako agintariekin, historialariek eta komunitatearekin lan eginda, bat-bateko istorioak sortzeko, emanaldiaren une horretan dagoen publikoak egiten dituen proposamenetatik abiatuta.

Iraupena: **75'**

ANTZEZLEAK

Sandra Aguerri, Garazi San Martin, Pablo Cañete, Irene Criado, Julio César Terrazas, Carlos Rodríguez, Sergio Salinas eta Teresa Sarriguren (txandaka)

PARTAIDEEN ZERRENDA

Sorkuntza eta zuzendaritza:
De Improviso

INFORMAZIO GEHIAGO

www.deimproviso.com
[@deimprovisoteatro](https://www.instagram.com/deimprovisoteatro)



Kamchàtka

Kamchàtka

Uztailak 25, osteguna— 20:00

Uztailak 26, ostirala — 12:00

Karlos III.a Noblearen plaza

Kaleko antzerki sutsua, egungoa eta indartsua, mugen gainean dantzaten dena. Hirian galduta dauden zortzi pertsonaia, bakoitzak bere maleta aldean duela. Lañoak dira, ikusnahiak, sentikortasun handikoak, ez dituzte arauak ezagutzen. Haien jolasa hain fina da, ezen errealitatearekin nahasten den. Eta han irekitzen da elkarrizketarako gunea, eta bertan ikus-entzulea trukearen eta esperimazioaren aktore bihurtzen da. 'Kamchàtka' inprobisazio-ikuskizuna da, antzerkiaren, jolasaren eta bizitzaren beraren arteko mugak urratzen dituena. Taldearen xedea da ustekabea sortzea eta jendearengan galderak eragitea, elkarrizketa zuzena, soila eta naturala lagunduko duen errealitate paralelo bat sortuz.

Iraupena: **90'**



ANTZEZLEAK

Cristina Aguirre, Maïka Eggericx, Sergi Estebanell, Claudio Levati, Andrea Lorenzetti, Judit Ortiz, Lluís Petit, Josep Roca, Edu Rodilla, Santi Rovira, Gary Shochat, Prisca Villa, Amaya Mínguez eta Jordi Solé

PARTAIDEN ZERRENDIA




Jatorrizko ideia eta zuzendaritza artistikoa:

Adrián Schvarzstein
Sortzaileak: Cristina Aguirre, Maïka Eggericx, Sergi Estebanell, Claudio Levati, Andrea Lorenzetti, Judit Ortiz, Lluís Petit, Albert Querol, Josep Roca, Edu Rodilla, Santi Rovira, Gary Shochat, Ada Vilaro, Prisca Villa, Albert Vinyes

CARRER88, SLren ekoizpena, Melandok lagunduta.
 Ramon Llull institutuaren eta Espainiako Kultura Ministerioaren babes du.


INFORMAZIO GEHIAGO

www.kamchatka.cat

@ciakamchatka   

 KATALUNIA

 KALEA



Yûgen

La Banda teatro circo

Uztailak 25, osteguna — 22:00

Teobaldoen plaza

Argi eta iluntasuneko denbora-espazioetan ibiltzeak bizitzaren berezko bidea erakusten digu. 'Yûgen' hiru arimaren arteko topaketa da, egungo gizartearen hormak nola hautsi eta, hala, beren muinaren zentzuarekin berriro konektatu aurkitzeko. Espazio eszenikoa zirkulu bihurtuko da, erdi-puntuko arkuak duen kupula, eta horrek bidea emango die artistei barnean sortzeko. Murgiltze-esperientzia da, eta, horrenbestez, publikoa ikuslea eta protagonista da aldi berean.

Inprobisazioa eta lengoia berrien ikerketa da La Banda taldearen sorkuntza-prozesuaren euskarria. Beren proiektuetan, zirkua, antzerkia eta musika elkarrekin bizi dira, ikus-entzulea emozioen bidaia batean murgiltzeko, harritzeko eta konektatzeko helburua duten narratiba bisualak sortuz.

Iraupena: 50'

ANTZEZLEAK

Izaskun Lasarte, Gaspar Illoro eta Nano Napal

PARTAIDEEN ZERRENDA

Jatorrizko ideia: Izaskun Lasarte
Zuzendaritza: Anna Ros
Mugimenduko laguntzailea: Lucio A. Baglivo

Jantziak: Edurne Ibañez

Musika: Jorge Cerdón

Argiztapena: Livory Barbéz

Eszenografia: Nafarroako

Unibertsitatea eta La Banda teatro circo

Eszenografia eraikitzea: Ivan

López eta La Banda teatro circo

Irudi grafikoa: Asis Bastida

Ekoizpena eta bideo-edizioa:

Kaptura. S.L.

Argazkiak: Rodrigo Pérez

Txisti

INFORMAZIO GEHIAGO

www.labandateatrocirco.com

@labandateatrocirco  

104. Haurra

Yarleku Teatro

Uztailak 26, ostirala — 20:00

Centro Cultural Tafalla Kulturgunea

104. haurra umezurztegi batean dago, eta adopta dezatela nahi du. Beste neskato batzuekin batera, jantziak egiten eta josten ematen du eguna. Adopzio-familia batek hautatzea nahi duenak gogor egin beharko du lan eta dena ezin hobeto egin beharko du. Familia-ikuskizun honek haurren esplotazioaz, identitateaz, elkar laguntzearen garrantziaz eta egoera zailei aurre egiteko sormenak duen balioaz hitz egiten du, aktoreen antzezpena objektuen eta txotxongiloen antzerkiarekin nahastuz. Antzezlari honetan, adiskidetasunak eta amets partekatutak kemena ematen dute, hegan egin ahal izateko mundu bat sortzeko.

Iraupena: 55'

ANTZEZLEAK

Eva Azpilikueta
eta Laura Villanueva

PARTAIDEEN ZERRENDIA

Zuzendaritza artistikoa:

Jokin Oregi

Musika-sorkuntza:

Adrian García de los Ojos

Soinua eta argiztapena:

David Lainez

Eszenografia: David Lainez

Jantziak: Aiora Ganuza
(Hari&Ari)

Antzezlari honek Nafarroako
Gobernuko Kulturako
Zuzendaritza Nagusiaren Artem
Pro 2023 laguntza jaso du.

INFORMAZIO GEHIAGO

www.elpuntogunea.com

@elpuntogunea



Villa

Teatro playa

Uztailak 26, ostirala — 22:00

La Cava

Hiru emakume Villa Grimaldi, Pinocheten diktaturako tortura- eta sarraski-gune nagusia, birmoldatzeko aukera desberdinak eztabaidatzen ari dira. Militarrek eraitsitako etxea berreraikitzea? Museo moderno bat eraikitzea? Arazoa konpontzen zaila da.

Diktaturako biktimen memoria defendatzen saiatzen diren giza eskubideen erakundeek egun dituzten benetako eztabaidez hitz egiten du 'Villa' lanak.

Iraupena: 70'



ANTZEZLEAK

Francisca Lewin, Macarena Zamudio eta Carla Romero

PARTAIDEEEN ZERRENDIA

Zuzendaritza eta dramaturgia:

Guillermo Calderón

Zuzendaritzako laguntzailea:

María Paz González

Diseinu integrala:

María Fernanda Videla

Ekoizpena:



María Paz González

Argazkiak: Pola González

Fundación Festival Internacional Teatro a Milen koprodukzioa da 'Villa'.

INFORMAZIO GEHIAGO

www.teatroamil.cl

@fundacionteatroamil  

@fundteatroamil 



MDR

Los Galindos

Uztailak 27, larunbata — 19:30

Teobaldoen plaza

Edukiera mugatua. Gonbidapenak hartu behar dira Enozentrumen txartel-leihatilan

'MDR' (Muerte de risa) deseroso sentiarazteko eta ongi pasatzeko fartsa da. Melon, Mardi eta Rossinyolek ustekabeko gatazka bat izango dute aurrez aurre. Beren izaerak, menderakaitza eta trauskila den izaerak, eta existitzeko beharrak lan gertagaitz batera eramango ditu, eta bertan aske esploratuko dute edozein astakeria. Esperientzia barregarri eta izugarri honek laguntasun zintzo eta garratzeko istorio bat transmititzen du, ardura- eta erru-sentimendu batek eragindakoa. Hilketa sinesgaitza, epaiketa zalantzagarrria eta zigor absurdua. Paradoxikoki, beharbada, barrez hiltzeko irrika sortuko dute.

Los Galindos 1991n jaio zen, sorkuntza kolektiboan energia gaztearen eta bilaketa kezkatu baten arteko sinergia batetik. 'MDR' antzeztanarekin, kaleko formatura itzuli da, proposamen eszeniko konprometitu batekin.

Iraupena: **70'**

ANTZEZLEAK

Anicet Leone, Gabriel Agosti eta Marcel Escolano

PARTAIDEEEN ZERRENDA

Kontzeptua eta zuzendaritza:
Bet Garrell eta Marcel Escolano

Sorkuntza-taldea estreinaldira

arte: Anicet Leone, Marcel Escolano, Santi Ruiz Albalade eta Bet Garrell

Eszenaratzea: Stephane Filloc
Laguntza idaztean eta kontzeptu eszenografikoan:

Joël Fesel

Konplizitate kontzeptuala:

Johnny Torres

Objektua: Nartxi Azkargorta

Bideoa:

Marc Soler
Argazkiak: Klara Pedrol eta Mireia Guillella

Ekoizpen exekutiboa eta

zabalkundea: Caterina Fiol

INFORMAZIO GEHIAGO

www.losgalindos.net

@LosGalindos

@los_galindos

Mal de coraçon

Companyia Solitària

Uztailak 27, larunbata — 22:00

La Cava

Santa Teresa Avilakoaren figuraren inguruko esplorazioa, hiru pertsonaia agonikok taberna batean duten topaketaren bidez: zerbitzari bat, egiatan aktorea dena eta Santa Teresari buruzko musikal baterako castinga prestatzen ari dena; hisiaz beterik eta erdi paranoiko dagoen mutil maitemindu bat, neska-lagunak Jainkoarengatik utzi duela uste duena; eta hilzorian dagoen eta galtzaile sentitzen den irakasle bat, berrerrosia izan nahi duena. Zabuka dabilzan antiheroiak, munduan beren tokia aurkitzen ez dutenak. Kanpoan, erauntsi batek hiria geldiarazi du.

Proiektuak errealitatea eta fikzioa nahasten ditu, eta Santa Teresaren figurarekiko liluratik sortu da. 'Mal de coraçon' zen bere gaixotasuna izendatzeko zuen moduetako bat. Ez dakigu ziur zer izan zuen, baina minarekin izan zuen harremana gogorra eta esanguratsua izan zen.

Iraupena: 80'



ANTZEZLEAK

Júlia Barceló, Pol López
y Pau Vinyals

PARTAIDEEN ZERREDA

Jatorrizko ideia:

Companyia Solitària
Zuzendaritza: Andrea Jiménez
(Teatro En Vilo)

Dramaturgia:

Victoria Szpunberg

Eszenografia: Judit Colomer

Jantziak: Adriana Parra

Argiztapena: Conchita Pons

Soinu-espazioa:

Lucas Ariel Vallejos

Zuzendaritzako laguntzailea:

Rita Molina

Eszenografiako laguntzailea:

Idoia Costa

Ekoizpen exekutiboa:

Júlia Molins

Ekoizpeneko laguntzailea:

Maria G. Rovelló

Banaketa: Júlia Simó Puyo

eta Guillem Albasanz

(Cassandra Projectes
Artistics)

Ekoizpena: Companyia

Solitària eta Teatre Nacional
de Catalunya

Companyia Solitària
eta Teatre Nacional de
Catalunyaren arteko
koprodukzioa da 'Mal de
Coraçon'.

INFORMAZIO GEHIAGO

@ciasolitaria 



Entrañas

El Patio Teatro

Uztailak 28, igandea — 19:00 eta 20:00
Erriberriko kultura-etxea

Nora joaten dira gure gorputzak desagertzen direnean? Zer gara? Zerekoak gara? Zer da gorputz bat? El Patio Teatro giza gorputzaren barnealdera agertzen da, objektuen antzerkiaren eta kontaktaren bidez, barnean dugun hori zer den azaltzen saiatzeko. Anatomia-eskola herabe batean, galderak pilatu egiten dira, gorputzaren misterio batzuk argitzen saiatzeko. Emaitza jolas bat da.

'Entrañas' Mime Londresko nazioarteko mimo-jaialdiaren programaren barnean egon zen. Jatorrizko ideia onenarengatik 2024ko Feten saria jaso du, eta eszenografia onenarengatik, 2023ko Fira de Titelles de Lleida saria.

Iraupena: 45'

ANTZEZLEAK

Izaskun Fernández
eta Julián Sáenz López

PARTAIDEEN ZERREDA

Zuzendaritza eta dramaturgia:

El Patio Teatro

Eszenografia eta argiztapena:

El Patio Teatro

Jantziak: Martín Nalda

Jatorrizko musikaren

konposizioa: Nacho Ugarte

Argi- eta soinu-teknikaria:

Diego Solloa

Argazkiak: Clara Larrea

Diseinu grafikoa: Diego Solloa

Banaketa: Ana Sala (Ikebanah
Artes Escénicas)

INFORMAZIO GEHIAGO

www.ikebanah.es

@ikebanahartescenicas @

@elpatioteatro @

@elpatio.teatro f

Casting Lear

Barco Pirata, Teatro de la Abadía eta Andrea Jiménez

Uztailak 28, igandea — 22:00

La Cava

Andrea Jiménezek 'Lear erregea' Shakespeareren klasikoaren bertsioa egin du, baina berezitasun batekin: gau bakoitzean, testua ezagutzen ez duen aktore desberdin batek jokatzen du rola. Antzezlan honek fikzioaren eta errealtatearen, antzerkiaren eta performancearen, arteko gurutzaketak ikertzen ditu, aitaltasunari, maitasunari eta barkamenari buruz hausnartzeko.

Gure gurasoekin, biologikoekin, baina baita metaforikoekin ere, barne hartuta William Shakespeare bera, harremanak nola ditugun pentsatzeko ate ireki bat izateko nahia du bertsio-simulakro honek.

Iraupena: **90'**



ANTZEZLEAK

Andrea Jiménez,
Juan Paños eta gauero
aktore desberdin bat

PARTAIDEEEN ZERRENDIA

Sorkuntza eta testua:

Andrea Jiménez

Zuzendaritza: Andrea Jiménez
eta Úrsula Martínez

Dramaturgia: Andrea Jiménez
eta Olga Iglesias

Argiztapena eta eszenografia:

Judit Colomer

Soinu-espazioa: Lucas Ariel

Mugimendua: Amaya Galeote
eta Inés Narváez

Jantziak: Yaiza Pinillos

Zuzendaritzako laguntzailea:

Óscar Martínez-Gil

Ekoizpeneko zuzendaritza

eta ekoizpen exekutiboa:

Nuria-Cruz Moreno

Ekoizpeneko zuzendaritzako

laguntzailea:

Fabián Ojeda Villafuerte

Ekoizpeneko burua eta

erregidoretza: Blanca Serrano

Kudeatzailea biran eta

erregidoretza: Paco Flor

Zuzendaritza teknikoa:




Manuel Fuster

Administrazioa:

Henar Hernández

INFORMAZIO GEHIAGO

www.barcopirata.org

@barcopirataorg   

Ezkaba

Iluna Producciones

Uztailak 31, asteazkena — 22:00

La Cava

Presondegiaren memoria bertako biztanle bakoitzaren memoria da, familia, historiarena, zapuztutako ilusioena eta itxaropenena. Bertako hormak haien arroparekin eta oroitzapenekin eginda daude. 'Ezkaba' antzezlanak San Kristobal gotorlekuaren tragedia eta presoena historia kontatzen du. Europako handienetakoa izan zen ihesaz hitz egiten digu, baina baita kartzelako bizi-baldintza gogorrez, tratuz, gosez, presoena eta emakumeen artean ezarri ziren elkartzasun-sareez, konpromisoaz, elkarlanaz, justiziaz eta erreparazioaz.

Iluna Produccionesek eta Miguel Goikoetxandiak lan honekin duten helburua da Nafarroako memoria historikoko gertakari garrantzitsuenetako baten historia ikertzea eta publikoari gogoeta eragitea antzerkiaren bidez.

Iraupena: **70'**

ANTZETZLEAK

Marta Juaniz, Ana Berrade,
Raquel Sánchez, David Larrea
eta Miguel Goikoetxandía

PARTAIDEEN ZERRENDA

Egiletza eta zuzendaritza:

Miguel Goikoetxandía

Argiztapena eta soinua:

Ion Martinkorena



Jantziak: Iluna Producciones

Eszenografia:

Ion Martinkorena

INFORMAZIO GEHIAGO

www.ilunaproducciones.es

@ilunaproducciones  





De tal palo

*Juan Ayala eta
Miguel Oyarzun*

Abuztuak 1, osteguna — 19:30
Frantziskotarren eliza

‘De tal palo’ parte-hartzean oinarritutako ikuskizuna da, komunitarioa, biloba eta aitona-amonentzat, bizirik dauden bi belaunaldiren bizitza esploratzen duena: frankismoan jaio ziren pertsonak eta milurteko honetan jaiotakoak. Galderen eta elkarrizketa-denboren bidez egituratzen da topaketa.

Txandaka, bikoteek beren ikuspegia, esperientzia eta harremana partekatzen dute, denbora-muga desberdinak dituen eta arauak emanda dituen elkarrekiko elkarrizketa baten bidez. Emanaldi bakoitzean, topaketa aldatu egiten da, galderen hurrenkera eta edukia aldatzen da, baina egiturak irauten du. Memoria historikoko ariketa bat esperientzia intimotik, trauma bat belaunaldiz belaunaldi nola igarotzen den aztertzeko esplorazio bat. Begirada bat belaunaldien arteko jauziari eta aldi berean ondareari, bi gauza horiek egungo herrialdean nola eragiten duten pentsatzeko.

Iraupena: **60'** (jarraian, publikoarekin egongo dira)

PARTAIDEEEN ZERRENDA

Miguel Oyarzun eta
Juan Ayalaren proiektua.

MADRIL

Canción

Nacho Bilbao

Abuztuak 2, ostirala — 20:00

Erriberriko Errege-erreginen Jauregia,
Sarrerako patioa

Bakarrizketa abestua, batera abesteko gonbidapena, beste gizaki batzuekin batera bizitzeari buruzko balada etsia. 'Canción' lanak badu zerbait musikal bakunetik, hiriaren erdian egindako kanpalditik, karaoke distopikotik eta oso landua ez den erritutik. Komunitatean bizitzeak dituen argi-ilunei buruz hausnartzen du piezak, musika ibilgailu moduan erabilia. Besteen, arrotzen eta etsaien, ahotsa bizitzeko eta elkarri berriro begiratzeko gune bat sortzeko saiakera da.

'Canción' lan-sail baten barnean dago, eta bertan Nacho Bilbaok antzezlearen eta publikoaren, artistaren eta ez-artistaren, arteko harremana ikertzen du, eta hierarkia horiek zalantzan jarri eta eraldatzera jolasten da.

Iraupena: **90'**



ANTZETZLEAK

Nacho Bilbao

PARTAIDEEEN ZERREDA

Zuzendaritza eta

dramaturgia: Nacho Bilbao

Zuzendaritzako aholkularia:

Carlos Tuñón

Dramaturgiako aholkularia:

Gon Ramos

Zuzendaritzako laguntzailea:

Cristina Cejas

Esenografia eta jantziak:

Antiel Jiménez

Argiztapena:

Rocío Sánchez Prado

Ekizpena: Mayte Barrera

INFORMAZIO GEHIAGO

www.nachobilbao.com

@nachobilbado

MADRIL

MUSIKA

Halley

Led Silhouette

Abuztuak 2, ostirala — 22:00

La Cava

'Halley' izenburuak Eguzkiaren inguruan orbitatzen duen kometari egiten dio erreferentzia. Aldian behin itzultzea historiaren errepikapen ziklikoaren eta giza existentzia markatzen duten ekitaldien sinboloa da. Ekoizpenak zortzi pertsonako talde batean jartzen du arreta. Aurrez aurre erronka hau dute: antolatu egin behar dira eta beren bizitzei zentzua aurkitu behar diete, kometa berriro igaro eta dena berriz hasi aurretik. Estetikaren, gorputzaren, dantzaren eta mugimenduaren bidez, beren identitate eta jatorriaren gainean hausnartzera bultzatuko dira ikus-entzuleak.

Led Silhouette konpainiak mugimendu-forma berriak ikertu nahi ditu, bere metodologia sortzeko, non gorputzaren funts filosofikoa den mugikortasunaren eta bizitasunaren gertakari bihurtzea.

Iraupena: 90'

ANTZETZLEAK



Katalin Arana, Lucía Burguete, Marina Fullana, Laura Lliteras, Marcos Martincano, Nicolás Martínez, Edoardo Ramírez eta Diego Pazó

PARTAIDEEEN ZERRENDIA

Zuzendaritza eta koreografia:
Jon López eta Martxel Rodríguez
Laguntza dramaturgikoa:
Marcos Morau
Musika-moldaketak:
Mauricio Pérez Fayos
Zuzendaritza teknikoa eta argiztapena:
Andoni Mendizabal
Soinua eta ikus-entzunezkoak:
Livory Barbez
Eszenografia: David Pascual
Jantziak: Iñaki Cobos
Argazkiak: Irantzu Pastor
Bideoa: El Estudio, Adela Moreno eta Ana Escario
Ekoizpena: Led Silhouette
Ekoizpeneko laguntzaileak:
Nagore Martínez
Banaketa: Rocío Pindado, Portal 71
Nazioarteko banaketa:
Lola Ortiz de Lanzagorta

Gayarre Antzokiaren, Nafarroako Gobernuaren, Centro Coreográfico Canalen, Malandain Ballet Biarritzen, Barakaldo Antzokiaren (Dantzalabea), Azkuna Zentroaren eta Gasteizko Antzerki Sarearen elkarlanarekin.

INFORMAZIO GEHIAGO

www.ledsilhouette.com
@led_silhouette  

 NAFARROA

 DANTZA





Together to get there

Akira Yoshida & Lali Ayguadé

Abuztuak 3, larunbata — 20:00
Centro Cultural Tafalla Kulturgunea

Dantzaren eta mugimenduaren bidez, hitzetatik harago doan elkartzeko intimo bat aurkituko du ikus-entzuleak. 'Together To Get there' besarkada bat da, bestea sentitzea, elkarren arteko sostengua, eraldaketa bat, aldaketa bat. Erortzen hasten diren zatiak, beste batzuk eusten. Une hori ahaztu egiten da eta aldeak agerian gelditzen dira: zeharo desberdinak direnak, hauskortasuna eta indarra; erortzen uztea eta kontrolatu nahia. Oreka eta ezegonkortasuna. Giza harreman baten benetako izaera.

Lali Ayguadé eta Akira Yoshidaren elkarlana, Nafarroako Gobernuaren 2023ko DNA Nafarroako Dantza Jaialdiko sormen-egonaldietan sortutakoa, aurretik 'Gizaki' lanean izan zuten elkarlanaren arrakastaren ondoren.

Iraupena: **52'**

ANTZEZLEAK

Akira Yoshida eta Lali Ayguadé

PARTAIDEEN ZERRENDIA

Zuzendaritza artistikoa eta koreografia: Akira Yoshida, Lali Ayguadé

Musika: Donald Beteille

Argiztapena: Fermín Izco
Jantziak:

Ferrán Casanovas

Dramaturgia: Jordi Oriol

Ekoizpeneko laguntzailea:
Fanny Cleyrat

INFORMAZIO GEHIAGO

@akirazrc

@lali_ayguade



Macho grita

Alberto San Juan

Abuztuak 3, larunbata — 22:00

La Cava

Alberto San Juanek antzezten du komedia musikal hau. On Joanen mitotik abiatuta, orainaren eta 1492an hasi zen aldiaren arteko erlazioa ikertzen du. Errekonkistara, Amerika aurkitzera eta juduak eta moriskoak kanporatu izanera egindako gerturatze pertsonala, umorez pentsatzeko nola eraikitzen den 'arra, zangarra' dena.

Espainian ikusezin egindako historiara gerturatzeko San Juanek duen gogotik jai da 'Macho grita' lanaren ideia, egungo bizitzarako balioko duten gauzak ulertzeko itxaropenarekin, gizartea eraikitzeko oinarri gisa baliatu diren menderatzeko nahiak eta grina harrapakariak gizartea bera akabatzen mehatxu egiten dutenean.

Iraupena: 80'

ANTZEZLEA

Alberto San Juan

PARTAIDEEEN ZERREDA

Dramaturgia eta

zuzendaritza:

Alberto San Juan

Musikariak: Pablo Navarro,

Gabriel Marijuan, Miguel

Malla eta Claudio de Casas

Argiztapena: Raúl Baena eta

Eduardo Vizuetete

Jantziak eta espazio

eszenikoa: Alberto San Juan

Zuzendaritzako laguntzailea:

Carlota Gaviño

Ekoizpeneko laguntzailea:

Lucía Rico

Ekoizpen exekutiboa:

Joan Fernández

Antzerki Klasikoko Konpainia

Nazionalaren eta EQMren

arteko koprodukzioa da

'Macho grita'.

Iribarne

ButacaZero

Abuztuak 4, igandea — 22:00

La Cava

Hau ez da Manuel Fragari buruzko biopic-a, baizik eta Espainian ezinbestekoa izan zen bigarren mailako pertsonaietako baten eskutik oinez ibilita honaino nola iritsi garen ulertzeko saiakera. Frankismoaren kontra egiten duen satira. Eszenaratzeak jolas korala eskaintzen du, eta bertan antzezle guztiek elkarri txanda ematen diote Fragarena egiteko, haurtzarotik hil zen arte. Hiru zatitan planteatuta dago muntaia, eta Espainiaren duela gutxiko historia eta bilakaera politikoa jasotzen du.

ButacaZerok gaurkotasunarekin hitz egiten duen antzerkia proposatzen du, begirada kritiko eta ironiko batetik. 'Iribarne' lanarekin, publikoa proiektuaren fase guztietan barne hartzen duen sormenezko kudeaketa-eredu berri baten alde egiten du, ikus-entzuleak sortze-prozesuan parte hartzera gonbidatuta.

Iraupena: 180'

ANTZETZLEAK

Mónica García, Xurxo Cortázar, Anxo Outumuro, Lidia Veiga, Jorge De Arcos eta Esther F. Carrodegua

PARTAIDEEEN ZERRENDA

Testua: Esther F. Carrodegua
Zuzendaritza: Xavier Castañeira
Koreografia eta zuzendaritzako laguntzailea: Sabela Domínguez
Aholkularitza koreografiko tradizionala: Artur Puga

Zuzendaritzako bigarren laguntzailea: Antonio Castro
Soinu-espazioa: Berto
Espazio eszenikoa: Xavier Castañeira, Diego Valeiras
Jantziak: Diego Valeiras
Argiak: Diego Vilar, Equipo Creativo RTA
Ikus-entzunezkoak: Pablo Fontenla
FX editorea: Antón Miranda
Laguntza teknikoa: RTA
Ekoizpena: Juancho Gianzo

Komunikazioa: Equipo Sopa, The Office
Elkarrizketak: Inma López Silva, Pablo Fontenla

ButacaZeroren ekoizpena, CDN eta Ribadaviako Mostra Internacional de Teatrorrekin koprodukzioan.

INFORMAZIO GEHIAGO

www.butacazero.com
@butacazero





Instalazio

etengabea



Rosa de Pieria

Marta Pazosen instalazioa

Uztailaren 19a eta abuztuaren 4a artean
Teobaldoen plaza

Antzinako Grezian, ereinotzekin koroatuta egiten zitzairen omenaldia artistei. Artista emakumea zenean, aldiz, Pierako arrosekin koroatzen zen. Pieriako arrosa bost petaloko basalorea da, delikatua baina irmoa. Erriberriko jaialdia antzerki klasikoko jaialdi moduan sortu zela aintzat hartuta, instalazio honen asmoa da artista emakumeak gurtzeko ideia hori ekartzea.

Teobaldoen plazako lorategiaren erdian egongo den eskultura bat izango da, eta, batetik, artista emakumeei egindako omenaldi hori irudikatuko du, eta, bestetik, estreinaldiaren egunean emanaldi baten amaieran agertokian ematen diren loreen sinboloa irudikatuko du. Iraganeko ondarearen, orainaren eta etorkizunean gure kultura eraikiko duten pertsonen inspirazioaren arteko besarkada da.

Marta Pazos antzerkiko eta operako eszena-zuzendaria da, eszenografoa, dramagilea eta artista bisuala. Alderdi plastiko batek eta emantzipazio estetiko batek nabarmentzen du bere lana, antzerki errealista batetik harago, fikzioaren eta errealaren arteko mugak lausotuz. Pazosen instalazioak Arte Garaikideko Galiziako Zentroan, Cidade da Culturako Gaiás Museo Zentroan eta Pragako National Galleryn, Prague Quadrenial PQ23n, aurkeztu izan dira.

Topaketak



artistekin

Topaketa Forever antzezlaneko taldearekin

Daniel Galindo, Machús Osinaga eta Raúl Losanezekin

Uztailak 20, larunbata — 13:00

Enozentrum, Erriberri

Erriberriko Antzerki Jaialdiak berriro ere zenbait topaketa antolatu ditu edizio honetan programatuta dauden konpainia batzuetako artistekin eta prentsa espezializatuan erreferentziakoak diren kazetari batzuekin, publikoak parte hartzeko aukerarekin. Oraingo honetan, Machús Osinaga (RTVEko kazetaria, aditua arte eszenikoetan), Daniel Galindo (RNEko La Sala irratsaioaren zuzendaria) eta Raúl Losánez (antzerki-kritikaria La Razón egunkarian) hizketan ariko dira 'Forever' antzezlaneko taldearekin. Kulunka Teatro konpainiaren, Zentro Dramatiko Nazionalaren, Donostiako Victoria Eugenia Antzokiaren eta Bilboko Arriaga Antzokiaren koprodukzioa da.

Tragikomedia eder eta sakona da, etorkizunerako ditugun proiektzioen eta errealitatearen beraren artean dagoen aldetik sortzen dena. Hala, samurtasuna eta gordintasuna konbinatzen dituen ikuskizun batean mozorroen lengoia isilaren alde egitera bultzatzen duen proposamen baten sorkuntza-prozesura gerturatu ahal izango dira bertaratzen diren ikus-entzuleak.

Artistekin eta kazetariarekin egiten diren topaketa hauetan, aperitibo bat zerbitzatuko da, Reyno Gourmeten eskaintza moduan.

Sarrera librea da, edukiera bete arte.



Topaketa Chévere eta Cultura i Conflicterekin

Daniel Galindo, Machús Osinaga eta Raúl Losanezekin

Uztailak 21, igandea — 13:00
Enozentrum, Erriberri



Machús Osinagak (RTVEko kazetaria, aditua arte eszenikoetan), Daniel Galindok (RNEko La Sala irratsaioaren zuzendaria) eta Raúl Losanezek (antzerki-kritikaria La Razón egunkarian) topaketa egingo dute Chévere eta Cultura i Conflictetako konpainiekin.

Chévereko kideek 'Helen Keller, ¿la mujer maravilla?' sortzeko prozesuari helduko diote. Hizkuntza mintzatua eta zeinu-hizkuntza bateratzen dituen ikuskizuna da, entzuten duten eta ez duten pertsonen arteko inkomunikazioa zalantzan jartzeko.


Bere aldetik, Cultura i Conflictetako taldeak 'Moríos' lanean garatutako lanaz hitz egingo du. Antzezlanak aurre egiten dio adinekoen diskriminazio eta inbisibilizazioari, haien hitza eta garrantzia aldarrikatuz.

Artistekin eta kazetariekin egiten diren topaketa hauetan, aperitibo bat zerbitzatuko da, Reyno Gourmeten eskaintza moduan.

Sarrera libre da, edukiera bete arte.



Egonaldi



artistikoak



Philia

Compañía Paraván

Uztailak 29, astelehena — 20:00

Beire

Uztailak 30, asteartea — 20:00

Erriberriko kultura-etxea

Antzerki-pieza honen asmoa da emakumeen arteko adiskidetasunen berezitasunak ulertzea: nerabezarotik helduarora dagoen bilakaera, talde-dinamiken eraldaketa, eta betiko laguntasunen eta urteekin sortzen doazen adiskidetasun berrien arteko aldeak. Alicia Baldesen 'Amistad Radical' artikuluan oinarri hartuta (bikotearen eta familiarren afektibitate-sistemak mugitzean eta adiskidetasuna erdian jartzean, hura homogeneizatu egin dela adierazten du), 'Philia' piezak galdera batzuk egiten ditu: non gelditzen dira zainketa eta gainerako babes-sareak, adibidez, sindikatu-borroka edo auzotasuna? Laguntasuna despolitizatu da? Zer adiskidetasun-forma eduki nahi ditugu?

Ikerketan zehar bildutako istorioen bidez, Paraván konpainiak haiek jokoan jartzeko eta publikoarekin interaktiboa den modu batean itxuratzeko modua esploratzen du, konbentzioei aurre eginez eta giza sentsibiltatea esnaraziz, agertokiaren mugetatik harago.

PARTE-HARTZAILEAK

Aiora Enparantza, Saioa Lara eta Paula Gironi.

Y volver, volver, volver...

Maialen Díaz Urriza eta Emilia Ecay Arroniz

Uztailak 30, asteartea — 20:00

Tafalla Kulturgunea

Uztailak 31, asteazkena — 20:00

Erriberriko kultura-etxea

María Luisa Elío nafar aktorea eta sortzailea Mexikon erbesteratuta egon zen, eta 'Cien años de soledad' idazteko prozesuan Gabriel García Marquezi lagun egiteko pribilegioa izan zuen. Eliok, era berean, 'Tiempo de llorar' idatzi zuen. Bi testuek badute zerbait batera: existitzen ez diren tokiei buruzkoak dira.

'Y volver, volver, volver...' saioan, bi aktorek María Luisa Eliori hel egingo diote eta hark eduki ez zituen aukera batzuk eskaintzera jolastuko dira. Erbestaldi batean irauteko unibertso posible bat, jatorrizko lekua presente duena eta bizitzeko lurralde moduan sorkuntza artistikoak irekitako aukera berriekin. Maialenek eta Emiliak galdera honetan oinarritzen den jolas eszenikoa planteatzen dute: sorkuntza artistikoak ahalbidetu ahal digu existitzen ez diren tokietan bizitzea?

PARTE-HARTZAILEAK

Maialen Díaz eta Emilia Ecay,
Aurora Moneo eta Carmelo
Gomezzen kolaborazioarekin.





Tailerrak

eta mintegia



El tiempo como materia

Sorkuntza eszenikoko tailerra, Marta Pazosekin

Uztailaren 22a eta 26a artean – 10:00-14:00

Casa de Cultura de Olite

Tailer teoriko-praktiko honetan, Marta Pazosek bere lanaren sistematizazioa partekatuko du. Sortze-lanaren tresna nagusi moduan intuizioa eta gozamina legitimatzen dituen prozesu bat, denbora baliabide material moduan hartuta, ez muga moduan. Gure sistema gidatzen duten egotik eta lehiakortasunetik arreta urrunduta sortzea proposatzen du artistak. Eszenikoa dena ikuspegi holistiko batetik jorratuta, formen eta lengoaien arteko elkarrizketak ezarrita eta sortze-prozesua osotasun gisa ulertuta: ideiatik jendaurrean aurkezteraino, entzunaldietatik, entseguetatik, ekoizpenetik edo egutegian finkatuzetik igarota. Pazos antzerkiko eta operako eszena-zuzendaria da, eszenografoa, dramagilea eta artista bisuala. Alderdi plastiko batek eta emantzipazio estetiko batek nabarmentzen du bere lana, antzerki errealista batetik harago, fikzioaren eta errealaren arteko mugak lausotuz.

IZEN-EMATEA

Mintegi honek 15 plaza eskaintzen ditu arte-prozesuetan interesa duten sortzaileentzat. Eskaintzen diren plazak bete arte eman ahal izango dute izena. Horretarako, mezu elektronikoa bidali beharko da programasydifusion@navarra.es helbidera, bertan idatzi beharko dira izena, bi abizen, helbidea, NANA, telefono mugikorra eta helbide elektronikoa, eta matrikularen zenbatekoa ordaindu izanaren ordainagiria gehitu beharko da.

Tailerraren kostua 40 euro da. Banku-transferentzia egin behako da Kulturako Zuzendaritza Nagusiaren ES38 2100 3693 2122 0054 7110 kontu zenbakira. Azalpenean PAGO MATRÍCULA EL TIEMPO COMO MATERIA idatziko da eta bai izena ematen ari den pertsonaren izen-abizenak ere.

Prezioak barne hartzen du mintegiko eskoletan parte hartzea eta 'Villa' ikuskizunerako sarrera. Erriberri joatea parte-hartzaileen konturakoa izango da. Mintegian izena ematea kronologikoki egingo da matrikula ordaindu duten pertsonen artean. Gertatzen bada norbaitek izen-ematea ordaintzea eta plazak beteta egotea ordurako, matrikularen zenbatekoa itzuliko zaio.

¿Cuáles son las verdaderas normas?

*Dramaturgia-tailerra,
Victoria Szpunbergekin*

Uztailaren 22a eta 26a artean – 11:00-14:00
Erriberriko kultura-etxea

Dramaturgiaren oinarrizko kontzeptuetan egingo den ibilbidea, idazketako ariketa praktikoek lagunduta eta arreta berezia jarrita antzerki-konbentzioak planteatzen dituen arauen eta parte-hartzaile bakoitzaren ikuspegi pertsonalaren arteko elkarrizketan. Antzerkia norberaren irudimena, hizkuntzaren mugak eta antzeztearenak garatzeko toki moduan.

Victoria Szpunberg dramagilea eta zuzendaria da, eta ibilbide sendoa du estreinaldietan (hala nola 'L'imperatiu categòric', 'Mal de coração' eta 'El pes d'un cos'), argitalpenetan eta mota desberdinetako lan artistikoetan. Horrez gain, irakaslea da Institut del Teatren, Obrador de la Becketten eta arte-ikerketako eta -prestakuntzako beste gune batzuetan. Mundu garaikideko gai politiko eta sozialekin konektatuta dagoen antzerkia egiteko kezka duen egilea da, begirada ireki eta diziplinaz haraindiko begirada batekin.

IZEN-EMATEA

Mintegi honek 15 plaza eskaintzen ditu arte-prozesuetan interesa duten sortzaileentzat. Eskaintzen diren plazak bete arte eman ahal izango dute izena. Horretarako, mezu elektronikoa bidali beharko da programasydifusion@navarra.es helbidera, bertan idatzi beharko dira izena, bi abizen, helbidea, NANA, telefono mugikorra eta helbide elektronikoa, eta matrikularen zenbatekoa ordaindu izanaren ordainagiria gehitu beharko da.

Tailerraren kostua 40 euro da. Banku-transferentzia egin behako da Kulturako Zuzendaritza Nagusiaren ES38 2100 3693 2122 0054 7110 kontu zenbakira. Azalpenean PAGO MATRÍCULA CUALES SON LAS VERDADERAS NORMAS idatziko da eta bai izena ematen ari den pertsonaren izen-abizenak ere.

Prezioak barne hartzen du mintegiko eskoletan parte hartzea eta 'Mal de coração' ikuskizunerako sarrera (antzezlan horren dramaturgia Victoria Szpunbergena da). Erriberri joatea parte-hartzaileen konturakoa izango da. Mintegian izena ematea kronologikoki egingo da matrikula ordaindu duten pertsonen artean.

Gertatzen bada norbaitek izen-ematea ordaintzea eta plazak beteta egotea ordurako, matrikularen zenbatekoa itzuliko zaio.





Reclamar lo real

Mintegia, Juan Ayala eta Miguel Oyarzunekin

Uztailak 28, igandea — 13:00
Enozentrum, Erriberri

Benetakoa erreklamatzeko eta artxiboa, lekukotza eta dokumentua agertokira eramateko jaiotzen diren dokumentu-antzerkia, botere-sistemak eta -egiturak ikusgai egiteko. Egun, agertokian errealitatea islatzean, zer den errealia hausnartzen dugu, eta bai kontaktak, identitateak, partaide izatea edo zilegitasunak eraikitzearen gainean ere, performatiboa den zerbait moduan, antzerkikoa den zerbait moduan. Dokumentu-antzerkian eta dokumentu-antzerki post dramatikoan erabiltzen diren antzezpente-technikak, idazteko tresnak eta gailu eszenikoak jorratuko dira.

Juan Ayala eta Miguel Oyarzun elkarlanean aritzen dira 2010az geroztik, antzerkia, performancea eta ekitaldi publikoak egiten, haietan parte hartzen duen jendearekin eta jendeari buruz. Beren proiektuak, bai profesionalak bai komunitarioak, Teatro Español, La Casa Encendida, Teatro de la Abadía eta Mataderon, Madrilan, aurkeztu izan dira, besteak beste.

IZEN-EMATEA

Mintegi honek 20 plaza eskaintzen ditu Nafarroako arte eszenikoetako profesionalentzat. Aurretik izena eman behar da eta plazak bete arte egongo da aukera. Horretarako, mezu elektronikoa bidali beharko da programasydifusion@navarra.es helbidera, eta bertan idatzi beharko dira izena, bi abizen, helbidea, NANa, telefono mugikorra eta helbide elektronikoa.

Mintegian, aperitibo bat zerbitzatuko da, Reyno Gourmeten eskaintza moduan.





Nuestro Olite Gure Erriberri

Tailerra, Nacho Bilbaorekin

Uztailaren 29a eta abuztuaren 2a artean – 11:00-14:00
San Frantzisko eskola zaharrak

Tailer honetan, antzerkiaren aukera mugagabeekin jolastera eta beren antzezlanak sortzera gonbidatuko dira 15 lagun, 8 eta 16 urte artekoak. Nacho Bilbao artista eszenikoak, musikagileak eta arte-hezitzaileak lagunduta, parte-hartzaileak elkartu egingo dira, irudimenarekin, gorputzarekin eta ahotsarekin zer egiteko gai diren ikusi eta jakiteko, agertokiaren plazeraz gozatuz eta bizi diren munduari buruz duten begirada partekatuz. Antzerkiaren funtsa bizitzeko aukera bat: jolasa.

Bere proposamen eszenikoetan, Bilbaok arreta berezia jartzen du haur eta nerabeengan. Musika-zuzendaria eta soinu-sortzailea da antzerki-ekoizpenetan, hezitzaile aritzen da antzerki aplikatuaren, pedagogiaren eta sormenaren arloetan, eta Espainian erreferentziatzekoak diren arte-heziketako proiektu batzuetako kidea da, adibidez, Cross Border eta LÓVA proiektuetakoa.

IZEN-EMATEA

Mintegi honek 15 plaza eskaintzen ditu 8 eta 16 urte arteko pertsonentzat. Eskaintzen diren plazak bete arte eman ahal izango dute izena. Horretarako, mezu elektronikoa bidali beharko da programasydifusion@navarra.es helbidera, bertan idatzi beharko dira izena, bi abizen, helbidea, NANa, telefono mugikorra eta helbide elektronikoa, eta matrikularen zenbatekoa ordaindu izanaren ordainagiria gehitu beharko da. Tailerraren kostua 15 euro da. Banku-transferentzia egin behako da Kulturako Zuzendaritza Nagusiaren ES38 2100 3693 2122 0054 7110 kontu zenbakira. Azalpeneari PAGO MATRÍCULA GURE ERRIBERRI idatziko da eta bai izena ematen ari den pertsonaren izen-abizenak ere.

Prezioak barne hartzen du mintegiko eskoletan parte hartzea. Erriberrira joatea parte-hartzaileen konturakoa izango da. Mintegian izena ematea kronologikoki egingo da matrikula ordaindu duten pertsonen artean. Gertatzen bada norbaitek izen-ematea ordaintzea eta plazak beteta egotea ordurako, matrikularen zenbatekoa itzuliko zaio.

ANTOLATZAILEAK



LAGUNTZAILEAK



www.FestivalTeatrOlite.es/eu

#AntzerkiaErriberri2024